

... ZE NEUAN KON-
TATZEN?... A, BAI!
BA HORI, CORTEINGLESIAN
NEUALA AKORDAU JATA
EUSKALDUNBARRIXEKIN
EKAULA TA, ANTXITXIKE-
TAN ETORRI BIHAR,
IKUSIKOZU ZE GUSTORA
EGONGO GAREN BARRI-
KETAN! BAÑA ZEUK
PE ESAN ZEOZER?

SALDA
BADAGO



FAEM

LAGA
BA!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

- Miopia (Femtosegunduko laserrarekin)
- Kataratak (Lente multifokalarekin)
- Presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. - 20600 EIBAR Gipuzkoa

Tel.: 943 201 844 - Fax: 943 820 314 • admon@clinicarecalde.com / www.clinicarecalde.com



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

Maitane G. Iñiguez doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

08.00 - 22.00

Zapatuetan

10.00 - 14.00

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



ASTEAN ESANAK

"AEBetan legerik gabeko inperioa gara, Erromatar Inperioaren antzera, dena kontrolatzen dugunak: itsasoa, airea, industria militarra, zibernetika... guztia. Beste inork ezin gaitu kontrolatu; ez dugu ezer errespetatzen. Obama instituzioaren abokatua da eta bere gobernuak kontrola galdu du"

(OLIVER STONEA, ZINE ZUZENDARIA)

"Ohitu egin gaituzte afalosteko albistegi eta tertuliarik gabe geratzera astegunetan, futbol partida dagoen aldiro. Gure inguruko irratien artean, Onda Vascako Gabon saioa da diktadura horretatik libratzen gaituena"

(XABIER LASA, KRITIKARIA)

"Iparraldera joanez gero, tabernetan nabaritzen duzun isiltasuna guk elizan bakarrik izaten dugu. Horretan espainolak gara guztiz, buila bera egiten dugu Beasaingo tabernetan eta Cadizekoetan"

(ARANTZA URRETABIZKAIA, KAZETARIA)

"Eta Kataluniatik gabeko Espainia ere ez litzateke Europatik kanpo geldituko? Eta Cartagena, Murziako erkidegotik aterako balitz, hainbatek eskatu bezala, ez litzateke Espainiatik kanpo geldituko, Murziak beto aukera beretzat gordeta?"

(ANGEL ERRO, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JO TA JO.- Zerbaitetan etengabe jardun. "Erlojuak ixildu barik, kanpaiak jo ta jo dihardu".

JO TA KEIA.- Jo ta ke. "Jo ta keia dihardue langilliak Sanjuanetarako etxia amaittu gurarik".

JO TA SU.- Jo ta ke. "Urte guztian jardun genduan jo ta su alper alperrik".

JO TA PASA.- Kontu edo ardura gutxirekin egindako lana. "Hónek bihar merkiok jo-ta-pasa egin bihar dittuk".

eskutitzak

ENERGIA BURUJABETZA JARDUNALDIAK

Politikari eta enpresariak lau urterako plan estrategikoak egiten ari diren bitartean, 20 urte barru prospektiba oso txarrean egongo gara energia arloari dagokionez. Etorkizuna bermatu nahiko badugu, orain da ekiteko unea. Horregatik, energia burujabetza helburu hartuta, gure kasa urratsak ematen hastea ezinbestekoa da.

Elgoibarren irailaren 28an bidea zabaldu nahi dugunon topaketa egongo da, eta zu ere gonbidatu nahi zaitugu gurekin batera parte hartzera. Goizeko 09.00etan hasita, honako puntuak jorratuko dira: Energia Auzolan taldearen aurkezpena, Energiaren arazoa etorkizunean, Energia be-

rriztagarriak eta efizientzia energetikoa (kontsumoa jaisteko instalatzaile baten aholkuak), Kooperatiba energetikoak Som Energia Gara eta **Goener**, Energia burujabetzarako traba den espainiar legedi energetiko berriaren azterketa, eta Berriztagarrien mugak ingurugiroarekiko. Ondoren, egun martxan dauden proiektuei buruz hitzegino dugu eta, amaitzeko, egitasmo lokalei laguntza emateko Basque OSeren aurkezpena entzungo dugu.

Energiaz beteta Elgoibarren elkar ikusiko dugulakoan, zapatura arte.

ARAKITZ IRURETA



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZTARILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERAK:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.

PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO MARRAZKIA:** Jose Antonio Azpilikueta

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Wenzeslaoko jaixak bixar

Aurreko urtian egindakua bidetik, aurren be San Wenzeslao jaixak ospatuko dittue izen bereko kalekuak eta, horretarako, hainbat ekitaldi preparau dittue bixar zapaturako: 10.30xetan egingo detse jai-xari, Musika Eskolako M^a Sol Arrillaga eta bere ikasliak trikitixarekin lagunduko daberen kalejiria eginda. Ondoren ume eta helduendako jolasak egingo dira (sokati-ra, kaskara-batzia, zaku-lasterketia...) eta eguardirako pintxo-potia eta txorizo-jana antolatu dittue. Hamaiketakua egiñ eta gero, 12.30xak aldera herri kirol erakustaldixa eskinduko dau Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolarixak. Bestalde, patata-tortilla txapelketia be egingo da: parte hartu nahi dabena tortilla etxian preparau eta 14.00xetarako epaimahaixaren aurriran presentau biharko dau. Tortilla egitteko gitxienez sei arrautza erabiltzia eskatu dabe antolatzailliak eta eurak geratuko dira lehiaketara aurkeztutako tortillekin, arratsaldian egingo dan pintxo-potian banatzeko. Auzokuen bazkarixa 14.30xetan hasiko da eta Duo Amanecer taldiak girotuko dau. Eta gabian jaixa agurtu baiño lehen, arratsaldian txokolate jana, umiendako jokuak, pintxo-potia eta DJ Arnoren musika saiaua egingo dira.

Sanmigelak Agiñagan

Agiñaga auzokuak, urtero lez, San Migel jaixak ospatuko dittue: zapatuan San Migel bezperia dala gogoratzeko kanpauralketia egingo dabe ermittan. Eta domekan, San Migel egunian, 11.00etako mezarekin hasiko dira ospakizunak. Mezia amaitsu eta gero, piskolabixa hartu eta 12.30xetatik aurrera Gorriti eta bere animalixekin edarto patszeko aukeria eukiko dabe han inguruan batutakuak. Usartza txistulari bandakuekin batera paella-jana eginda agur-




tuko dabe jaixa, baiña hurrengo asteburuan segiduko dabe ospakizunekin, urriaren 5erako antolatu dittuenekin. Arratsaldeko 17.00etatik aurrera briska txapelketia, umiendako jolasak, txokolate jana, afarixa eta Kupela taldiaren erromerixia egingo dittue Agiñagan.

Giro edarra Legarreko jaixetan

Egurdixa lagun, ederto ospatu zittuen Legarreko jaixak aurreko asteburuan. Antolatutako guztietan jende morduia ibilli zan bai barixakuan bai zapatuan, batez be umiendako egin ziran ekitaldixetan. Herri bazkarixan be 180 lagun batu ziran. Jai batzordekuak jai-xetako zozketan saritutako zenbakixak 851, 352 eta 1.174 izan dirala emon nahi detse aditzera txartelen bat erosi daberen guztieri, laguntziagaittik esker ona azaltzirekin batera.



IRUNE JAI



LOMCE EZ taldiaren agerraldixa

Eibarko LOMCE EZ taldiak agerraldixa egingo dau datorren asteko egunian (urriak 3) 19.00etan Portalean. Agerraldixan, bestiak beste, urriaren 12rako hezkuntza legiaren erreformaren kontra protesta egitteko Bilbon egingo dan manifestaziñuarekin bat egingo dabela azaltzirekin batera, LOMCE legiari aurre egitteko Euskal Herriko hezkuntz eragilliak antolatzen diharduen ekimenen barri emongo dabe. Herriko ikastetxietako ordekarixak be bertan egingo dirala aurreratu dabe.

IGNACIO GOENAGA GALARRAGA

(II. urteurrena -2011-IX-23-)

**URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA.**

-Etxekoak-

**Haren aldeko meza ospatuko da hilaren 29an
(domekan), 12.00etan, San Pio X. parrokan.**



Gripiaren kontrako bakunaziñua

Astelehenian hasi zan Osakidetza urtero abiatzen daben gripiaren kontrako txertuaren kanpaiña. Azaruaren 8ra arte iraungo daben kanpaiñaren helburu nagusiña arrisku-taldietan (65 urte-tik gorakuek, diabetesa edo gaitxotasun kronikuek dituenak eta osasun-arloko profesionalak) dagaizenak txertua ipintzera animatzia da. Bakunatzia nahi dabenak zuzenian bere medikuari esan eta txandia emongo detse.



Azaruaren 8ra arte iraungo dau gripiaren aurkako kanpaiñak.

Bideo barrixak Ego Ibarren bideotekan

Ego Ibarra batzordiak bideo barri bi gehitu detsaz bere

bideotekari: Alcala eta Salamancako unibersidadiak "gerrako umien" gaiñian egindako "Entre España y Rusia. Recuperando la historia de los niños de la guerra" dokumentala eta Alberto San Emeterio eibartarrak begiradia atzera botata sortu daben "Eibar ciudad de todos y todas. La apasionante historia de nuestro pasado" izenburukua. Le-

helengo lanak Alcalan, Salamancan eta Murtzian ikusgai egon dan erakusketan daka oiñarrixa eta bigarrenian, barriz, Eibarko Udal Artxiboko argazki eta bestelako agirixetatik oiñarrituta, San Emeteriok iraganari buruzko hausnarke-ta personala islatu dau. Bideuak, aurretik bideotekan batutako bestiak lez, egoibarra.com webgunian edozeiñek ikusteko moduan dagoz, argitalpeneri eskindutako atalaren barruan dagan "bideoak" azpiatalian.



autuan

1953-AN JAIXOTAKUAK

Aurten 60 urte bete edo beteko dituenak urriaren 19xan egingo dabe bazkarixa Unzaga Plaza hotelian. Juan nahi dabenak urriaren 14rako 80 euro (eta ez 60 euro, aldizkarixan oin dala aste bi txarto argitaratu genduan) sartu biharko ditue Kutxabankeko 2095 5035 00 9112891259 kontu korrontian, izen-abizenak argi adierazita.



"AIREAN" PUBLIKO BILA

Aurreko asteko aldizkarixan ETB Ieko "Airean" magazinerako publiko billa zebizela-eta, interesa dakenendako telefono zenbaki bat emoten genduan, baiña saioko arduradunak beste zenbaki honetara deitzeko eskatu dabe: 943011783. Horrekin batera, airean@eitb.com helbidera idatzi leike.

pr publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

f Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

REGISTRO MERCANTIL CONFIDENCIAL
Fº Tanatorio y Crematorio

Garraio jasangarrixen alde

asteko

17

datua

millioi euro kostauko dabe Legarre inguruan trenbidia bikoizteko biharak. 2014ko urtarrillian skalextrixa eraustia eta 2015eko lehen hiruhilekuan biharak amaitzia espero dabe

Mugikortasunaren Aste Europarraren harira, Udaleko Ingurumen saillak hainbat jarduera antolatu ditu, lehelenguk aurreko domekan Eibarko Txirrindulari Alkartiak antolatutako Bizikleta Eguna-ren barruan. Bestiak beste, gure herri-rttik urtenda bizikleta-martxa bi egin ziran eta Untzaga inguruan umiendako ibilbide eta proba berezixak preparau zittuen. Eta gaur goizerako Ingurumen batzordeko zinegotzixak lasterketia egitteko asmua zeken, garraibide azkarena zein dan ikusteko asmuakin.

Gai horren harira, bestalde, Udalak lizitaziñora etaratako Mugikortasunaren Plan Estrategikoa eta Integrala Leber-Novotec enpresiak egingo dabela emon dabe aditzera aste honetan bertan. Leber enpresariari 10 hilleko epia emon detse mugikortasun kontuetan datozen urtietarako hiri-ereduaren oiñarrixak



Asteburuan Bizikletaren Eguna ospatu zan. IRUNE JAIO

ezarriko dittuan dokumentua egitteko eta bixen bittartian udalak herritarren parte hartzerako prozesua martxan ipintzeko asmua dakala arrreratu dau. Udalak 69.333 euro pagauko detsaz lehiaketa bittartez aukeratu daben enpresari.

Kontu Auzitegixak esandakuaren harira

Aurreko barixakuan Errebalgo lurraren salmenta dala-eta Euskadiko Kontu Auzitegixak egindako azken adierazpenak baloratzeko agerraldixa egiñ eben Eibarko Bilduko ordezkariak. Kontu Auzitegixak atzo bertan adierazi eban Errebal auzixan gitxienez zazpi irregulartasun topau dittuala. Bestiak beste, kontratuaren esleipenak orubea atzera erosterik ez eguala jaso arren, auzitegixak Iñaki Arriolak eta Miguel De los Toyosek berriro erosi ebela baiezatu dau. Gauzak holan, eta Arriola kasu horren harira prebarikazioa egotzita inputatu moduan deklarau biharko dabela jakinda, Bilduk "Arriolak legitimidade politiko eta etikua galdu dabela" berretsi dau.

Bilduren agerraldixa amaittu eta jarraixan, Arriolak eta De los Toyosek euren ikuspegixa agertu eben. Kontu Auzitegixa organo administratibua dala argi laga eta gero, hainbat alderdi politikok Errebal auzixa "euren kontra juateko eta PSOERI erasotzeko" erabiltzen diharduela esan eben. Egotzitako karguaren gaiñian, barriz, argi laga dabe euren kontrako salaketiak "prebarikaziñuaz" diharduala, "hau da, legiaren barruan jardun dugun arren, jakiñaren gaiñian egonda gauzak txarto egin dittugula diñue". Eibarko epaitegira deklaratzera "lehenbailehen" juan nahi dabela gaiñeratu eben, "gauzak argittu eta proiektuaren alde biharian segidu ahal izateko".




Azoka ekologiko erakargarrixa

Biolur eta Debemen alkartiak udalen laguntasunarekin antolatuta Debabarreneko II. Aste Ekologikua egin da egunotan. Egitaraua aurreko asteburuan hasi zan, Urkizuko parkiak zapatu goizian hartu eban azoka ekologikuarekin. Eibarren ez eze, eskualdeko beste herrixetan be nekazaritza eta abeltzantza ekologikuaren inguruko jarduerak egin dira egunotan.



Fibrosi kistikoari xake-mate

Bixar goizian, 11.00etatik 14.00etara xakearen inguruko jardunaldi berezixa hartuko dau Untzagak, gaixotasun "arraruen" zerrrendan daguan fibrosi kistikua jendiaren artian ezagutzera emoteko asmoz. Amasa Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren alkartiak eta Klub Deportibuak antolatu daben jardunaldixan naziarte mailako maixua dan Diego Del Rey argentinarrak parte hartuko dau, ekitaldira batutako jendiarekin 25 partida aldi berian jokatura (nahi dabenak eukiko dau parte hartzeko aukeria eta ez da ezer ordaindu bihar).



Martitzenian aurkeztu zeben ikasturte barrirako Berbetan egitasmuaren ediziñua Portalean. Euskal Herri osora zabalduko Mintzalagun proiektua be egun berian aurkeztu zeben Donostian, mintzapraktika egitasmuaren 20. aldixa zala aprobetxatuta. Gure herriko proiektuak hamahiru urte beteko dittu eta urtietan parte hartzen dabenen talde kopuruari eutsi jako: zazpi bat talde dagoz, 50 bat parte-hartzaillerekin. Holakuak gero eta indar gehixago hartzen dihardue hamendik kanpora be: iaz 5.500 mintzalagun izan ziran. Guzti horri esker, euskeraz berba egitteko konplejuak gaintzeko aukeria eskintzen da. Gure herrixan, barrittasun moduan, Ane Urkiolak egindako bideoa zabaldu da, Kokein eta hainbat parte-hartzaillerekin: www.etakitto.com eta youtube-n. Izena emotia gura badozu, ...eta kitto-ra jo zeinke: 943-200918 telefono zenbakixan (Maidera edo Ainhoa).

BERBALAGUNA: euskararen munduko heroi berria

Bardin detsa zeñ helbururekin zatozen: izan zeinke berba egitteko lotsa galtziarena, kaleko euskeria zureganatzia gura dozula, hitz egitterakuan mailla hobetzia billatzen dozula, titulua eskuratzia nahiko zenduala, herriko euskal mundura hurbiltzia nahi dozula, bestieri be praktikatzeko aukeria eskindu

gura dozula, normalizaziñuan eragille aktibua izatia gustoko dozula, euskera maillari eustia nahiko zenduala, euskeraz bizitzeko aukerak ugaritzeko nahixa dozula, herriko euskal girua ezagutarazteko griña dozula... Baiña jakizula Berbetan programiak aukera eziñ ederragua eskintzen detsula euskeraz bizitzeko, disfrutatze,



ikasteko, bestiekin konpartitzeko... Badagoz be Berbetan barruko beste azpiprogramak, Gurasoak Berbetan kasurako, seme-alabekin izan biharreko transmiziñuan ikaragarri laguntzen dabena. Eta baita dendarixendako prestatutakua be, bezeruarekin mingaiña euskeraz dantzan jartzeko aukeria eskintzen dabena.

Superberbalagunak: Elkartu gurekin

Izen horrekin kaleratu dabe aurtengo programaren liburuxka Euskal Herri guztian, batez be "programetan izena emon eta inplikatzan diranak heroi moduan ikusten dittugulako, eskuzabalak", diñoskue antolatzailliak, berbalagunak buruan. Gure herrixan ...eta kitto! da ekimen honetako bultzatzaillia, Udal Euskaltegixak eta AEK-k laguntzen dabena bittartian, Gipuzkuako Foru Aldundiaren babesarekin.

Berbetan programak hamar urte baiño gehixago daroia Ei-

barren: "12. ediziñua izango da aurtengo ikasturtekoa. Demandia zeguan herrixan, sasoi hartako euskaldun barrixan aldetik batez be, euskeraz ikasten hasi eta gero, praktikara erauatian zailtasunekin topogitgen zebelako, inguruniak ez zetsen-eta laguntzen", esaten deskue Eibarren programiaz arduratzen diran ...eta kitto-kuak. "Gaur egun euskaldun-barri terminua baztertzen juan da, euskera ikasliaren alde", diñoskue.

Programaren helburua ez da ikastia (horretarako, euskaltegixak aproposaguak dira), "ikasitakua praktikara eramateko aukera naturala, informala eta lasaixa izatia baiño", diñue programako arduradunak. "Ohitturak eta txip-a aldatuta, soltura hartzia" da printzipalena. Akademikotasunetik kanpo sortutako ekimena da berbalagunena, "harreman saria be zabaltzeko aukeria emoten dabena". Lehelengo berbia euskeraz egittekoa!



Berbetan programan parte hartzen dabenetako batzuk. SILBIA H.

Gitxi eskatu eta asko emon

Hori da proiektu honetako errealidadia: *"Gitxi da eskatzen dana, baiña bakotzak eskintzen dabena haundixa da"*. Talde txikixak osatzen dira, *"zitat oillategixa ez bihurtzeko"*. Jendia astian behin batzen da, ordubete edo ordu eta erdi, *"taberna batian gehixenetan, baiña euren nahixari jarraituta"*. Taldiak, gaiñera, berbala-gunak libre daken ordutegixa-ren arabera antolatzen dira.

Eibarren azken ikasturtian zazpi talde osatu ziran, 45 bat lagunekin. *"Badira be oso fide-la diranak eta urte dexente da-ramatenak euren burua eskintzen"*. Halanda be, antolatzailliak dei berezixa egitten detse euskalduneri, *"parte-hartzaillien artian gehixago diralako euskeria ikasten dihardutenak. Baiña sortzen dan harremana aberasgarrixa da bai batzuen-dako eta baitta bestiendako be"*. Izena emoten dabena hasieran laguntza jasotzen badabe be, *"taldiak autonomiak izaten dira gero, euren artian antolatzeko aukeriarekin"*. Hortik aparte, Mintzaeguna, urteerak, txanguak, ikasturte-amaierako afari-meriendixa eta *"ikasturte osuan jokutzen*

daben tribial txapelketia" izaten dabe pizgarri. Eta, sasoi honetan garrantzitsuena dana, *"gaiñera duakua da"*. Zer egin bihar dan? ...eta kitto!-tik pasatu! Euskeraz egitteko gogua badakazu, ez detsu denbora askorik kenduko!

Gurasuen garrantzixa

Berbetan-en barruan, Gurasoak Berbetan egitarauak hirugarren ikasturtia hasiko dau oinguan, *"gurasuak arlo horretan, beste askotan moduan, eredu diralako seme-alabenda-ko, euskeriaren aldeko jarrera positibua lantzeko orduan"*. Famelixaren bidez jasotzen da ikasteko erarik naturalena, aberatsena eta eraginkorrena. ...eta kitto!-kuak ikastetxietara jo zeben, alkarlanian guraso euskaldunekin eta euskaldun berrixekin bide hori egitteko. *"Taldea naturalak be aprobetxatu dittugu, parkian osatutakuak esaterako, eta baitta mistuak be zentro desbardiñetan ikasten dabena haurren gurasuekin"*. laz 3-4 talde osatu zittuen, hoguei bat parte-hartzaillerekin. Hor be izan ziran ekintza osagarriak: *"Eskulan taillararak, kantu eta jolasak, eskursiñuak... beti be, guraso eta umiekin"*.



Arrate Valenciaga, Edurne Zenarruzabeitia, Belen Aranbarri eta Maider Aranbarri kanpaiña barrixaren aurkezpenian. SILBIA HERNANDEZ

laz beste bide bat zabaldu zeben, dendarixen artian, Dendarixen Elkartiarekin alkarlanian. Taldetxua osatu zeben, baiña aurten bide hori serixuago jorrazteko asmua dake: *"Horrek be kalidade plus-a eskinduko leuke, bezeruari aukeria emonaz eurekin euskeraz egitteko"*.

Parte-hartzaillien testimonixua

Martitzenian egindako presentaziñuan, esperientzia horretan jardundakuen testimonixua jasotzeko aukeria izan genduan. Holan, **Edurne Zenarruzabeitia** Ikastolako andereñuak irakaslien inplikaziñua nabarmendu zeban, *"gurasueri horren barri zelan emoten detsazun errezago animauko dittuelako. Parte hartzera animau diranak oso gustora ibilli*

dira". **Belen Aranbarri** San Andres eskolakuak diñuan, *"euskeria praktikatzeko aukera bikaiña da. Euskerarekiko jarrera positibua dakela ikusitta, umiak euren artian berba egitten dabena gurasuan inguruan harro egitten dabe"*. **Arrate Valenciaga** dendarixen ordezkariaren esanetan, *"ez da ezer kostatzen, oso erreza eta politta da, neri motza egin jatan oporrak segiduan etorri ziralako"*.

Hasieratik programan dagozen **Purik eta Marisak** oso ondo pasatzen dabela diñue: *"Harremanak egitteko be balixo dau"*. **Marimar-ek** diñuan, *"txikitan egitten neban, gero alabekin, eta oin dakidana ez galtzeko asmoz erabagi neban parte hartzia"*.



GIDA PRESTATZEN DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

eibar
GIDA
2014

943 20 67 76
DEITU... 943 20 09 18

Eibarren be Euskaraz Bizi Nahi Dogu


ZAPATUAN GOIZ OSUAN EGON ZAN MARTXAN EUSKARAZ BIZI NAHI DUT AZOKIA UNTZAGAN, herriko euskalgintzako alkarte eta erakundien eskutik. Azokia zabaldu aurretik, zapatuko ekitaldixaren harira idatzitako agirixa irakorri eben Leire Narbaiza ...eta kitto! Euskara Elkarteko zuzendaritza kidiak eta Elena Stodulka euskaltegiko ikasliak. Jarraixan, ekitaldira gerturatu ziran ordezkariz guztiekin erretratua egiñ eta banan-banan poster itxurako agirixa siñatu eben. Ekitaldixa antolatu eben euskalgintzako ordezkarixekin batera, Depar-

kel Debabarrena Parkinson Elkarte, Eibar Rugby Taldea, Urvat I.K.E., Eibarko PSE-EE, Bildu Eibar, Eibarko EAJ-PNV, Usartza Txistulari Taldia, Legarreko jai batzordia eta beste hainbat animau ziran ekitaldixarekin bat egittera.

Eguraldixa lagun, giro polita egon zan azokiak iraun eban bittartian eta jende morduia gerturatu zan alkarte bakotxak bere eskintza ezagutzera emoteko ipiñitako mahaixetara. Horrekin batera, azokaren inguruan jarduera osagarrixak egin ziran: taillarrak, jolasak, mintzodromua, bertso-jokua, Kalamuako Parlamentua...



Taillarrak eta jolasak euren tartia izan zeben. IRUNE JAIO



Taldietako ordezkarixen siñadura.



Ekitaldixan parte hartu zebenen erretratua egin zan, Untzagako eskillaretan bilduta.

urriaren 6an
AHORA!
TOLOSAN
 IRTEERA: **09.30** etan
 10 eurotan
 BUELTA: **19.00** etan
AUTOBUS zerBITZUA
 J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
 ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

EGOITZA NAGUSIA
 Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
 Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Urtea hastearekin batera gidatzeko baimena lortzeko egin beharreko probak aldatu zituzten. Azterketa teorikoan lehen baino galdera gehiago erantzun behar dira eta, lehenengo moduan, hiru hutsegite baino ez dituzte onartzen. Azterketa praktikoan, berriz, betiko probari beste kontu batzuk gehitu dizkiote. Aldaketak indarrean sartuta, kontrako ahotsak izan ziren, baimena lortzea lehen baino zailagoa zela esaten zutenak. Ez du gauza bera pentsatzen udan Zezenbide autoeskolan izena eman eta dagoeneko errepidean gidari dabilen Julen Lopez gazteak.

- Noiz eman dizute gidatzeko karneta?

Orain dela pare bat hilabete lortu nuen. Udako oporrak aprobetxatu ditut, gidatzeko baimenerako azterketarako ikasteko-eta denbora libre gehiago nuelako. Aurten bertan bete ditut 18 urteak eta, behin gidatzeko eskatzen den gutxieneko adinera ailegatuta, gidatzeko karneta izatea beharrezkoa dela pentsatzen dut, edozein tokitara joatea tokatuz gero norberak baimena izanda automobilerik joateko aukera izatea garrantzitsua da.

- Eta zenbat denbora eman duzu autoeskolan?

Azterketa teorikoa prestatzen hiru aste eman nituen. Autoeskolan izena emango nuela argi izan nuenean, bertara joan aurretik liburua irakurri nuen eta, beraz, autoeskolak klaseetara liburua aurretik irakurrita joan nintzen. Hiru aste horietan goizero ordubete inguru egiten nuen autoeskolan, azterketak bete eta bete. Azterketa praktikoa prestatzeko, berriz, 18 bat ordu egin nituen automobila nola gidatzen den autoeskolako irakaslearekin ikasten. Azterketa Azpeitian egiten denez, autoare-

kin praktikak ere inguru hartan egin nituen. Azterketa biak, teorikoa eta praktikoa lehenengoan gairiditu nituen.

- Karneta lortzeko egin beharreko guztien artean zer egin zaizu zailena?

Egia esateko, gida-baimena lortzea ez zait bat ere zaila egin, erraz lortzen dela uste dut.

- Eta nolako izan da lehen aldiz bizi izan duzun bolante atzeko esperientzia?

Lehen egunean dena berria zen, bizpahiru ordu behar izan nituen automobilerikoa gauza bakoitza non zegoen ikasteko eta, hortik aurrera, dena askoz errazagoa egin zitzaidan.

- Errepidea eta trafikoa ezberdin ikusten dira norberak gidatzen duenean?

Ez bereziki, baina egia da gidatzen zoazenean trafiko seinaleei eta beste kontu batzuei gidatu barik zoazenean baino arreta gehiago ipintzen diezula.

- Badira pare bat hilabete gidatu dezakezula. Ikasitako praktikan ipintzeko aukerarik izan duzu?

Bai, bai! Gidatzeko baimena lortu eta amaren automobila gidatzen hasi nintzen, amak arrebari eta bioi autoa erabiltzen lagatzen digu.



Julen Lopez Salas
(GIDARI BERRIA)

"Gida-baimena lortzea erraza egin zait"



**ALBERTO EGIAZU
URDANGARIN**
(2013-IX-5)



Utzi gintuzan, baina
sekula utzi gabę.
Bide bat hartu zenuen,
errazena ez zen arrın.
Zauden lekuan zaudęla,
hemın gaituzula badakizu.
ZURE FAMELIXIA



Gaur arratsaldean (Portalean, 19.00etan) liburu berria aurkeztuko du Juan Sanchez Vallejo sendagileak. "La locura y su memoria histórica" izenburuko lanak gerra zibil ondorengo errepresaliatu psikiatrikoek jasandakoa kontatzen du. Horretarako, mediko-ikasle zeneko sasoiak ekartzen du gogora, bide batez memoria historikoaren zati horretan zegoen hutsunea betetzeko. Eibarko medikuak aurretik psikiatriaren inguruko beste hainbat liburu kaleratu ditu: "La mala vida", "Locos de desatar", "Con el sudor de tu mente", "Senectud, divino tesoro" eta "Tierra adentro" tarteko. Gaurko aurkezpenean liburuaren hitzaurrea egin duen Javier Madrazo eta osasunarekin, psikiatriarekin eta historiarekin lotutako hainbat ordezkari izango dira berarekin. Sardo Irisarri aktoreak aurkeztuko du ekitaldia

JUAN SANCHEZ VALLEJO (psikiatra)

"Zoroa baztertze joera du gizarteak, familiarik hasita"

- Zergatik idatzi duzu liburu berri hau?

Memoria historikoaren barruan arlo hau ahaztu egin delako. Frankismoan izandako ankerkerien artean, ez da txikienetakoa gaixo mentalekin gertatu zena; baina inor ez dio hori erreparatu. Gaixo horiek ahaztu eta kaleratu egin dituzte: ez zaizkie eskubiderik onartu. Hainbat urte eman ditut hausnartzen eta orain dela bi amaitu nuen liburua.

- Zenbat denbora eskatu dizu liburua idazteak? Zergatik orain?

Niregatik orain dela 40 urte idatziko nuen, Sevillatik hona etorri nintzenez, exiliatuta. Bertako Mirafloreseko psikiatrikoan bizitakoa kontatzen dut, batez ere. Gure praktikak han egiten genituen hainbat ikasle hango egoera islatzen zuen argazki bilduma egin genuen eta, baita, Medikuntza Fakultateko ohar-taulan zintzilikatu, klandestinoki. Horren ondorioz, bota egin ninduten eta, Madrilen urtebete egin ondoren, hemen hartu nuen lurra. Sasoi hartan ezingo nuen halako libururik kaleratu; gainera, ez dut gustoko gorrototik idaztea. Orain, aldiz, memoria historikoa oraindik xakean dagoela, une aproposa deritzot, sektore sozial hori baztertua izaten jarraitzen duelako.

- Beraz, zure esperientzia pertsonala dugu liburuaren oinarri, ezta? Erabili duzu besotelako dokumentu historikorik?

Bizkarrezurra nire esperientziak dira, bai horiek osatzen dituzte hasierako bi kapitulu eta erdi eta baita sarrera ere. Narrazio horiek autobiografikoak dira. Badira beste ba-

tzuk, baina, psikiatria konparatzaile arloak. Azken horietan gaur egungo psikiatriaren ezaugarriak aztertzen ditut: gaixoen eskubideak aitzindari, zelako legeak dauden indarreen, herentzietan-eta zelako tratamendua izaten duten, ez-gaitza edo inkapazidade neurriak zelak hartzen diren... Eta, azken kapituluak, Europako beste herrialdeetako egoera erreparatzen dut: nahiko antzerakoa da ingurukoetan ematen dena, aurreratuenak Italian badaude ere. Han sortu zen antipsikiatria korrantea, Franco Bagnoliaren eskutik, eta orain dela urte batzuk ingresoak debekatu ziren.

- Azken urteotan aurrerapenak izango ziren tratamendu horietan...

Formetan eman da, batez ere, bilakaera hori. Elektroschock-ak, lobotomiak, insulina bidezko sendabideak... baztertzen joan dira. Homosexualitatea sendatzeko metodo konduktistak ere gaur egun ez dute lekurik. Baina ingresoekin jarraitzen dugu. Hori bai, badira lege garantistak eta, sei hilabeteko, epaileak kontuak eskatzen ditu. Sasoi batean ingresoak bizitza osorako izaten ziren: hilerriak ere izaten ziren ospitaletan.

- Zer gertatu zen Mirafloreseko psikiatrikoarekin? Bizirik dago?

1999an itxi zuten betirako. Aurretik, dena dela, modernizatu zen eta, Gonzalez Chaves zuzendariaren eskutik, "Saltamos la tapia" atek zabalik jardunaldia egin zuten. Ni egon nintzenez, 1.600 lagun zeuden han ingesatuta, asko fitxa barik, beste batzuk "por republicano".

- Aurretik kaleratu dituzun liburuetatik aldentzen da azken hau ikuspuntu aldetik?

"Locos de desatar" liburuan ere gai beraren inguruan teorizatzen dut. Zoroak sinbolizatu egiten ditu bere kezak, ez du botorik ematen. Eta gizarteak baztertu egiten du, azken urteotan gozoago bada ere, askotan zorotasuna biolentziarekin lotuz. Mezua argia da: zoroa = biolentzia = ezustekoa. Baztertu egiten da gaia eta, salatu ere, apenas. Gutxi idazten da horri buruz. Zoroa astindu egiten da noizbehinka, baina bere biolentzia babesez da.

- Liburu honek "Locos de desatar" lanaren bidetik joko du? Antzerkian ikusi ahal izango dugu?

Erregistratuta dut dagoeneko, "La rebelión de los imbeciles contentos" izenarekin, Harry Stack Sullivan psikiatra estatubatuarrek zabalduz bidetik jotzeko. Harek ere elektroschock-ak, lobotomiak eta halakoak salatzen zituen. Gizarteak ez du zoroak egiten duen salaketa interpretatzen; pilulak ematen dizkio.

- Beste liburuik bai buruan?

Frankismoaren azken urteetako militantzia klandestinoa tratatuko du hurrengoak, "¡Madre, quiero arreglar el mundo!" izenekoak. Ez dut idazten jendeak arrazoi emateko, baina uste dut sendagilea bere bulegotik irten behar dela eta jendea argi hitz egin behar diola, debatea zabaltzeko.

OHARRA: Datorren barixakuan, bestalde, Madrilen aurkeztuko du liburu. Gaspar Llamazares sendagilea izango da berarekin.

+ OSASUN GODA

Dentistak

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAIA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Telf. 943 20 18 51

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 Eibar
943 70 00 82
R.P.S 53/13

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnua: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnua. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Telf. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnua. 943 20 34 46 Tfnua. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044


HEMEN ZURE TOKI
izan nahi baduzu

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA
AIZPUN**
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOIA

Maidier
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOIA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

KIA

...

deitu 943-206776
telefono zenbakira

Eskumako lateralala bozkatzeko ordua Eibar FT-n



Esnaola da Eibarko harrobiko bakarria aurreko aukeratutako boskotean.

Aurreko astean Eibar FT-ren abonatek sei atezainen artean hautatzeko aukera izan zuten eta aste honetan eskumako lateralaren artean egin ahal izango dute hautaketa. Honako honetan 75. Urteurreneko Hamaikako Ideala osatzeko proposatutako izenak honakoak dira: Lozano, Esnaola, Altuna, Arriola eta Cifuentes. Bozkatzeko, 1940-2015@sdeibar.com emailera bidali behar da mezua, bazkide zenbakia eta aukeratutako jokalarirekin.



Debabarreneko BTT Martxaren bosgarren edizioa

Urriaren 13an, domekan, jokatuko da Debegeesak eta Elgoibarko Udalak antolatzen duten ekitaldi hori. Gure bailara-koa Gipuzkoan dagoen BTT zentro bakarria da eta bertan hasiko da -eta amaituko- proba, Elgoibarko Mintxeta kirolgunean. Berrikuntza moduan, aurten izenematea online bakarrik egin ahal izango da, www.kirolprobak.com webgunearen bitartez (egunean bertan ezin izango da egin). Fe-

deratuek 12 euro ordaindu beharko dute eta federatuta ez daudenek 15 (urriaren 11n eta 12an izena emanda, 3 euro gehiago). Parte-hartzaileek bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute: laburrak 25 kilometro ditu eta luzeagoak 45, bietan ere Karakate mendian zehar. 09.00etan hasiko den probaren amaieran hainbat sari banatuko dira: asteburuko egonaldiak, bazkariak/afariak, kirol materiala.



Ruibalen hutsek erabaki zuten Ipuruako neurketa

Aurkaria ere ez zen erraza, baina larrutik ordaindu zituen egingandako hutsak saskibaloiko 1. mailako Ruibalek. Botila erdi beteta ikusteko motiborik ere bada, eibartarrek partidu guztian aurre egin ziotelako aurkariari, jakinda azken denboraldian Santo Tomas Lizeoako lehen postuan amaitu zutela. Lehenengo laurdena Ruibalena izan zen (16-13). Eta beste hiruretan markagailuak donostiarren alde egin zuen: 25-34, 42-54 eta azkeneko 57-66. Aitor Azurmendi izan zen eibartarren saskiratzaile onena, 25 punturekin.

Hirukotea foball-zaletuen sailkapenean agintzen

Jardunaldi bi jokatuta, Sporting, Azkena Kalton eta Iruki dira, sei punturekin, partidu biak irabazi dituzten bakarrak Kiroljokoa foball-zaletuen ligan. Durangok ere ez du partidurik galdu, baina berdindu egin zuen aurreko asteburuan. Oraingoan ere oreka handiko neurketak izan dira, Txoko-Tanquemans (5-2) kenduta, markagailu estuekin erabaki direnak: Durangok Esmorgari, Koskorrek Aretori eta Irukik Garajes Garciari 1-0 irabazi zieten, Fontaneria Mujikak Caseriori eta Azkena Kaltonek EzDok-i 2-1eko emaitzarekin eta Sporting 3-1 nagusitu zitzaion Alkidebari.



Urki FT-k bere 36. denboraldiari ekin dio

Bederatzi talde izango ditu 36 urteko ibilbidea egin duen Urki foball taldeak denboraldi honetan. Batzuk aurreko asteburuan jokatu zituzten euren lehenengoko partiduak eta besteek urrian hasiko dute euren denboraldia. Honakoak dira taldeetako entrenatzaileak: Ekaitz Olaizola eta Paulino Cajas (1. Erregionaleko taldea), Fernando Centeno eta Ibon Laskurain (1. jubenila A), Haritz Iparragirre eta Jose Luis Arratibel (1. jubenila B), Jesus M^a Etxeberria eta Cipri Davila (Ohorezko kadeteak), Jose Fco. Bilbao eta Pablo Velasco (1. kadetea), Fernando Valle eta Juan Carlos Pulido (1. infanbila), Edu Gabilondo eta Jose M^a Arrillaga (infantil txikia), Zorion Ugalde (2. urteko alebina) eta Dani Perez (F-8ko nesken infanbila).



Talde teknikoak ere urte dexente egin ditu Urkiko jokalariz gazteekin.

Eibar Eskubaloiak ez du neurketa errazik izango Egian

Estatuko 1. mailako ligaren hasieran, eibartarrak nagusitasuna erakutsi zuten Quiron Askartza talde bizkaitarra igo berriaren aurrean (24-17). Ohikoa egin den bideari jarraituta, defentsako lan ona egin zuten eibartarrek eta lehen zatian sei gol bakarrik jaso zituzten. Lehenengo jardunaldi horrek hainbat ezusteko eskaini zuen eta iaz bigarren sailkatu zen Zaragozako Dominicosen 37-25 galdu zuen Toloza igo berriarekin eta gauza bera gertatu zitzaion hainbeste indartu den Kantabriako Santoñari, azken honek 25-21 galdu baitzuen



Urdanetarekin. Bihar Donostiara joko dute Fernando Fernandezek mutirik, Egia aurre egitera: orain dela aste batzuk doi-doi irabazi zuten eibartarrek Euskal Kopako partiduan.

Pantxo astoa sei gizon baino gehiago izan zen Mendaron

Mendaroko San Antolingo jaien egitarauaren barruan, Pantxo Eibarko astoak sei gizonen lana gainditu zuen. 20 minutuko lana egin behar izan zuten eta, denbora horretan, Pantxok 67 plaza gauzatu zuen bitartean, gizonen taldea 58ra heldu zen bakarrik. Erabilitako harria 600 kiloko izan zen: normalean 800-1.000 kilo bitartekoa erabiltzen da eta gizonen taldea zortzi lagunek osatzen dute. Probaren bigarren zatian nagusitu zen Pantxo, gizonen taldea baino erresistentzia gehiago erakutsiz.



Txirrindularitza denboraldiari agur esan dio Debarrenak

23 urtetik azpikoekin mailan jardun duen Eibarko Klub Deportivo taldeak denboraldia amaitu zuen asteburuan, zapatuan Oñatin eta domekan Zaldibian jokatuak probekin, biak ere Lehendakari Torneurako baliagarriak. Jokin Etxabe izan zen Debarreneko ordezkari onena: Oñatin ki-

lometro asko egin zituen ihes eginda eta Zaldibian 13. postuan amaitu zuen. Gipuzkoan amateur mailan urte gehien daraman taldeak, gure eskualdeko gazteei aukera ematez gain, helburu berriak izango ditu hurrengo denboraldian, besteak beste taldearen mugak zabaltzearena.

Concepto Egile: kanpoan irabazi, etxean galdu

Aurreko asteburuan Siguenzan 4-11 irabazi eta gero, azken jardunaldian areto-foballean Concepto Egilek 2-3 galdu zuen Elgoibarren San Juan taldearekin. Azkoitik sartu zuten Debarreneko taldearen bi golak eta taldeak irudi ona eman zuen ia denbora

guztitan, neurketaren tarte handiaren markagailuan atzetik joan arren. Partidua hasi aurretik azken denboraldian lortutako txapeldunaren saria jaso zuten Debarrenekoak. Siguenzan irabazitako partiduan, bestalde, Finok eta Raullek hiruna gol sartu zituzten.



Debarrena areto-foballean talde guztien familia argazkia.

TRIATLOIA

Aurreko zapatuan jokatuak Mutrikuko I. Triatloian 183 parte-hartzaile izan ziren, tartean gure herriko Delteco taldeko hiru atleta: Roberto Gartzia 30. postuan amaitu zuen, Alberto Agirrek 36.ean eta Maialen Zamakolak 128. tokian amaitu zuen proba.

FOBALLA

"Eibar KE-k bihar jokatu du, Xixongo Sporting-en aurka, 7. jardunaldiko norgehiagoka. Partidua El Molinonen jokatu da, 18.00etan, eta ETBI-ek zuzenean eskainiko du. Boveda eskumako laterala jokatzeko moduan egongo da.

ERRUGBIA

Martxan da Eibar Rugby eskola eta probatzea nahi dutenak Unbera joan daitezke, honako ordutegian: infantil mailakoak eguzten eta barixakuetan eta alebin eta benjaminak barixakuetan, kasu bietan 17.30etatik 19.00ak arte.



"Helburua edozein euskaldun ganorabako da"

Tokikom-eko kide diren hainbat tokiko hedabidek sortu duten pertsonaiari galderak egin nahi dizkionak galdetu@marimaistra.com helbidera idatzi, 668 88 91 92 zenbakira WhatsApp-a bidali edo @mari_maistra Twitter kontura idatzi dezake eta, horiek guztiak jasota, Marimaistrak gustu handiz erantzungo ditu astero, hiruzpalau minutuko bideoan. Orain arte hiru euskarri ditu: marimaistra.com bloga, youtube.com/marimaistra kanala eta @mari_maistra Twitter kontua. Goienera telebistan ere tartea izango duela aurreratu dute. Ezagutzen dutenek "jeinu bizi-bizia" duela diote; hemen daukazue Anbotoko Mariren diszipuluak kontatutakoa.

- Zein zara zu, Marimaistra? Nondik zatoz?

Ai bihotza, ez da galdera erraza! Marimaistra ez dator eta ez doa. Agertu eta desagertu egiten da, euskaldun ganorabakoek behar izaten dutenean, hizkuntzaren inguruko zalantza eta kezka uxatzeko.

- Laguntzera zatozela diozu. Nolako laguntza ematen duzu ba?

Ene, amante! Euskararekin izan dezakezuen edozein zalantza argitzera nator; bai gramatikalak, bai erabilerakoak. Zuek galdetu, eta nik oso gustora erantzungo dut.

- Zure burua gu laguntzeko prest horrela eskaintzeko, horren premian gaude? Zertan behar dugu laguntza gehien?

Tira, bakoitzak du bere gurutzeta... -begiak itxi eta arnasa sakon hartu du Marimaistrak-. Zuek, adibidez, komaren erabileran duzue arazoa! Baina, orokorrean, erdaren interferentziak izaten dira: erdarari jarraitzen diogu kontuak azaltzeko orduan. Ahaztu egiten zaigu euskarak bere bide propioak dituela.

- Honezkerok hainbat galdera jaso dituzu kontsultorioan. Nolako zalantzak dira?

Asko eta asko era honetakoak: "Hauxe entzun dut, ondo dago?". Eta beste asko, itzelezko sinplekeriak. Pentsatzen hasia nago euskaldun ganorabakoak alferrak ere badirela, jaso ditudan galdera gehienak Googlen bilatuta ere argitu daitezke-eta!

- Zure laguntza behar duenak zer egin behar du? Zurekin kontaktatzeko bideak oso modernoak dira. Gazte "super-mega-hiper-teknologikoak" erakarri nahi dituzu? Eta, hala bada, horiei euskera egokia nola erabili erakusteko prest zaude?

Moderno telefonoa, e-maila eta twitter? Ene, edozeinekin dauzka, barren! Ez, gazteak ez dira jopuntu bakarra. Helburua edozein euskaldun ganorabako da.

- Zuk zalantzaren bat argitu behar baduzu, nori galdetzen diozu?

Aizue! Ni Marimaistra naiz! Ez dut inori galdetu beharrik! Anbotoko Mariren diszipulua izanda, berak inspiratzen dizkit erantzun guztiak, ergatiboaren indarraren bitartez.



Kulturalak Uxuera txangoa antolatu du

Urriaren 19rako (zapatua) Uxuera txangoa antolatu du Arrate Kultur Elkartek. Egunerako antolatu duten egitarauari jarraituta, besteak beste Uxuen bisita gidatua egingo dute irteeran parte hartzera animatzen direnek eta bazkaria, berriz, San Martin de Unxen izango da. Autobusa 09.00etan irtengo da Ego gaineko autobus geltoki-

tik eta txangoaren prezioa 32 eurokoa da bazkideentzat eta 35 eurokoa bazkide ez direnentzat (bidaia, bazkaria eta bisita gidatua barne). Joan nahi duenak izena eman beharko du, Arrate Kultur Elkartearen bulegora zuzenean joanda, 943202299 telefono zenbakira deituta edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.



Ikasgai batzuk Markeskuan emango dira eta beste batzuk on-line egin ahal izango dira.

UEUren ikastaroetarako izen-ematea

Udako Euskal Unibertsitateak udazkenerako prestatu dituen ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Markeskuan bertan "Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen", "Eskola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako", "Isiltasuna gelan", "Jendaurreko komunikazioa" eta "Sormen-tailer aurreratua" izenburukoak emango dituzte eta "Geoge-

bra aurreratua", "Krisia eta kudeaketa publikoa Euskal Herrian", "Kultura arteko hezkuntzaren garapena", "Moodle 2.3-ren oinarrizko erabilera" eta "Ubuntu eta software libreria sarrera", berriz, on line ikas daitezke. Izena emateko edo ikastaro bakoitzari buruzko informazioa eskuratzeko www.ueu.org helbidera jo daiteke edo 943821426 telefono zenbakira deitu.

TopaEguna bihar Soraluzen

Pil-Pilean Soraluzeko euskara elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta TopaEguna euskaltzaleen jai eguna ospatuko da bihar Soraluzen. Horretarako 11.00etan hasi eta egun osoa beteko duen egitaraua prestatu dute: goizean Umeen Hiria, berba-probak, Andrabanda feminista, Kantu Jira eta puzgarriak egongo dira, jarraian herri bazkaria egingo da eta bazkalosteian jaiak jarraituko du, Irrien Lagunak, Kultur Gindak, Hezitzaileen arteko jolasak eta kalejirarekin; 18.00etan Euskal Herri oso-



Topaguneko eta Soraluzeko Pil-Pileaneko ordezkariak.

ko euskaltzaleen topagunetako ordezkarien partehartzea izango duen ekitaldi nagusia egingo da eta, hori amaituta, Xero Xietete taldeak erromeria eskainiko du; eta 22.30etatik aurrera Kokein eta Gose taldeek Zubian emango duten kontzertuak agurtuko du jaiak.

Euskerazko irakurketa kluba

Idazlearekin Harixa Emoten izenburuari jarraituta, ... eta kitto! Euskara Elkarteak eta Juan San Martin liburutegiak ikasturte honetarako euskerazko irakurketa kluba sortu dute. Liburutegian aurretik martxan dauden beste irakurketa klubuen funtzionamenduari jarraituko dio euskerazkoak ere: hilean behin irakurleak eta idazlea liburutegian batuko dira, alde aurretik zehaztutako liburu baten inguruan berba egin eta lanaren gainean hausnartzeko. Lehen saioa urriaren 8an 19.00etan egingo da eta bertan Kirmen Uribek "Mussche" lanaren gaineko azalpenak emango ditu. Azaroaren 4an Aitziber Etxeberriak "Tango urdina" komentatuko du eta abenduaren 10ean Arantxa Urretabizkaik "3 Mariak" liburuaren ingurukoak azalduko dizkie irakurleei. Klubean parte hartzea doan da eta izena emateko nahikoa da liburutegira joan eta hango arduradunei esatea.

Idazlearekin harixa emoten

4. delaunaldi garai

Mussche

Kirmen Uribe

2013ko urriaren 8an
19:00etan
Irakurketa Kluba euskaraz

Izen ematea:
Juan San Martin Liburutegian
Liburuak mailegatu hartzeko aukera

laburrak

ESPERIENTZIA ESKOLA

Bihar (zapatua) otarra zozketatuko dute Esperientzia Eskolakook Untzagan: 19.15etan hasiko dira otarraren zozketarako txartelak saltzen eta, gainera, Kaleetan Kantuz abesbatzak saioa eskainiko du. Otarraren zozketa bihar bertan, 21.00etan egingo dute. Biharko ekitaldiarekin eskolak bere jarduerarekin aurrera egiteko behar duen dirua batzeko kanpaina amaituko dute.



SERBIAN SARITUA

Juan Antonio Palacios Klub Deportiboko argazkilariak aurretik duen sari zerrenda luzeari beste berri bat gehitu dio, Serbiako FIAP-ek (Fédération Internationale de l'Art Photographique) bere argazki bati Ohorezko Aipamena egin dio-eta.

Irigoien argazkiak Portalean

Aurreko barixakuan zabaldu zuen Jose Luis Irigoien argazkilariak "50 urte argazkigintzan eta gero hau!" erakusketa Portalean. Urriaren 13ra arte martxan egongo den erakusketan 50 urteko lana islatzeko moduko bilduma ipini du ikusgai, eskegitako 140 argazkiak eta karpitetan sailkatutako beste 400 argazkiak osatutakoa. Martitzenetik domekara ikus daiteke erakusketa, 18.30etatik 20.30etara.



JOSE LUIS ECHARRI SUBERBIOLA

(2013-IX-20AN HIL ZEN, 90 URTE ZITUELA)



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen epeltasuna eman diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Titxitxa, ez agurrik, ez adiorik. Gure bihotzetan betiko maitz zaitugu.

ZURE EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRLOBAK.



○ 4.630 euskal twitterleri aktibo

Hori aztertu eta filtratzen du Umapek. Horrela, modu automatikoan, Twitterren dabiltzan euskaldunak detektatzen ditu. Milaka twitterleri aztertzen ditu eta baldintza batzuk betetzen dituztenak zerrenda batera igarotzen dira. Azken astean jasotako datuen arabera, 4.630 euskal twitterleri aktibo daude. Sarean askoz gehiago badaude ere, euskaraz eta maiztasun gutxieneko batekin aritzen direnak besterik ez ditu biltzen. Umapek twitterleri horien euskarazko jarduna ere neurtzen du: alegia, sarean egiten duten jarduera horretatik zenbatekoa den euskarazkoa.

euskararen txokoa

○ Aitorpena Euskaltzaindiari Europan

Europako Hermitarra sariaren domina jasozuen astelehenean Euskaltzaindiak Madrilen. Eta, Andres Umutia euskaltzain buruaren esanetan, saria euskalgintza osoari dagokio. Euskaldunen eskubideak eta euskararen erabilera sustatzeagatik eman dio saria Europako Batasunak. Hain zuzen ere, 1917. urtean sortu zen Euskaltzaindia; laster egingo du, beraz, mende bat lanean. Sari hori, dena dela, ez diote Euskaltzaindiari bakarrik eman, guztira 43 erakunde sarituko baitituzte urriaren 17an Bruselasetan, tartean Etxe Kaleratzeak Stop elkartea eta Ana Culau haren burua.

Sagardo Eguna urriaren 5ean

Euskal Herriko Sagardo Gorenak ekarriko duen sagardoen euskal selekzioarekin jaia egingo da urriaren 5ean Untzagan, ...eta ki-



tto! Euskara Elkarteak antolatutako Sagardo Egunean. Aurtan, gainera, jaiari modu berezian ekingo zaio 12.00etan, ...eta kitto! aldizkariaren sorreraren 25. urteurrena dela-eta. Goizez 12.00etatik 14.30etara egongo da sagardoa dastatzeko aukera eta, bazkaltzeko etenaldia egin eta gero, arratsaldez 19.00etan ekingo zaio berriz jaiari, banatzeko dagoen sagardo guztia amaitu arte. Urtero lez sagardoari laguntzeko pintxoak egongo dira eta musika, jolas eta bestelakoekin girotuko da jaia. Gainera, eguneko kontakizuna egiten laguntzen digutenean artean zozketa egingo dugu eta Sagardo Egunaren ingurukoak interneten eta sare sozialen bitartez kontatzeko eta #SagardoEguna erabiliko da.

Dantza ikuskizuna hartuko du Coliseoak

Aracaladanza konpainiak "Constelaciones" ikuskizuna eskainiko du Coliseoan urriaren 5ean, 20.30etan eta sarrerak 8 eurotan daude salgai (Coliseoko lehiatilan astelehenean 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara eta interneten www.kutxabank.es helbidean).

Aracaladanza taldearen koreografia taula gainean aurkezten Carolina Arija Gallardo, Jorge Brea Salgueiro, Raquel de la Plaza Húmera, Jonatan de Luis



Mazagatos eta Jimena Trueba Toca izango dira, Enrique Cabrerak zuzenduta. Ia ordubeteko iraupena izango duen ikuskizuna

2012ko abenduan estreinatuzuten Madrilgo Teatro de la Abadía eta harrezkerorik antzoki aurkezten dihardute.



'Amaren eskuak' zine aretoetara

Donostiako Zinemaldian Baleukok martitzenean aurkeztu zuen "Amaren Eskuak" Karmele Jaioren izenburuko bereko liburuan oinarritutako filma gaur estreinatuko da hainbat zinematan, tartean Coliseo antzokian. Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean eta Josu Bilbaoren gidioarekin, pelikulan parte hartzen duten aktoreen zerrendan, besteak beste, Ainara Gurrutxaga, Loli Astoreka, Esther Remiro, Mark Schardan, Aroa eta Naia Madurga, Naiara Arnedo eta Mikel Tello daude. Liburuak izandako arrakasta handiarekin animatuta, "idazlearen sentipenak pantaila handira eramateko" urrats bat gehiago ematea erabaki du Baleukok. Euskera da filmaren jatorrizko hizkuntza eta gaztele-razko azpitoluekin lagunduta proiektatuko dute.

(ANTZOKIAN)
28an: 19.45, 22.30
29an: 20.00
30ean: 20.30

"Amaren eskuak"
 Zuzendaria: Mireia Gabilondo



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, UNAI, atzo zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixa guztia-ren partez.



Zorionak, MIKEL, domekan bi urte egingo dozuz-eta. Aitxita eta amamaren partez.



Zorionak, ANER, astelehenian urte bi beteko dozuz-eta. Aitta, ama eta etxekuen partez.



Zorionak, EKHI, txapeldun, gaur bost urte egiten dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ARRATE, gure sorgintxo politta, martitzenian hiru urte haundi bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, EIDER! Egund politta aukerau zenduan jaixotzeko. Zorionak aitaxo eta amatxori. Patxo potolua danon partez, Witi!!!



Zorionak, MALEN, domekan hamar urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, atzo hiru urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo, aitxita eta amamaren partez.



Zorionak, IRAIDER!!! Primeran ospatu zure urtebetetzia eta patxo potolo bat zure lankidien partez.



Zorionak, BEÑAT, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NAGORE, neska haundi! Ondo ospatu astelehenian zure eguna eta muxu haundi bat etxekuen eta lagunen partez!



Zorionak, LAIA, martitzenian sei urte bete zenduaz-en-eta! Laztan haundi-haundi bat famelixaren eta, batez be, Izarren partez.

hildakoak

- Rosario Alcalde Serrano. 89 urte. 2013-VII-14.
- Jose Luis Etxarri Suberbiola. 90 urte. 2013-IX-20.
- Francisco Hernandez Gomez. 79 urte. 2013-IX-21.
- Jose Pablo Juaristi Sarasua. 52 urte. 2013-IX-21.
- Angeles Aizpuru Aizpuru. 82 urte. 2013-IX-22.
- Ignacio Garcia Urien. 76 urte. 2013-IX-23.
- Maria Arias Vazquez. 76 urte. 2013-IX-23.
- Juliana Zabala Zuazo. 84 urte. 2013-IX-23.

jaiotakoak


- Dustin Manuel Villafaña Morales. 2013-IX-7.
- Ibai Garcia Sanchez. 2013-IX-13.
- Eider Laskurain Telleria. 2013-IX-14.
- Noa Azkonizaga Matute. 2013-IX-16.
- Julen Manero Zafra. 2013-IX-16.
- Sia Martinez-Toledano Landakorta. 2013-IX-18.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
28an: 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
30ean: 20.30

"Elysium"

Zuzendaria: Neill Blomkamp



(2 ARETOAN)
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 20.00
30ean: 20.30

"Lobezno Inmortal"

Zuzendaria: James Mangold



(1 ARETOAN)
28an: 17.00
(2 ARETOAN)
29an: 17.00

"Monstruos University"

Zuzendaria: Dan Scanlon



(ANTZOKIAN)
28an: 17.00
29an: 17.00

"Los Pitufos 2"

Zuzendaria: Raja Gosnell



BARIXAKUA 27

INDIANOKUA

16.30. Disparate Eguna. Indianokua gaztelekuan.

LIBURU AURKEZPENA

19.00. "La locura y su memoria histórica" liburuaren aurkezpena, Juan Sanchez Vallejo lanaren egilearen eskutik. Portalean.

AZKEN OSTIRALA

19.30. Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Eibarko Herrirak deituta. Untzagan.

ZAPATUA 28

WENZESLAOKO JAIAK

10.30. San Wenzeslao jaien hasiera. Kalejira trikitilariekin (M^a Sol Arrillaga eta Musika Eskolako bere ikasleak).

11.30. Ume eta helduendako jolasak (sokatira, kaskara-batzea, zaku-lasterketa...).

12.15. Pintxo-potea eta txorizo-jana.

12.30. Herri kirol erakustaldia, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren eskutik.

14.00. Patata-tortila txapelketa (14.00etarako aurkeztu beharko dira).

14.30. Auzokoen bazkaria, Duo Amanecer taldeak girotuta.

18.00. Txokolate jana eta umeendako jokoak.

19.30. Pintxo-potea.

20.30. Musika saioa, DJ Arnoren eskutik.

23.00. Jaiaren amaiera. Wenzeslao Orbean.

XAKE JARDUNALDIA

11.00-14.00. Fibrosi kistikoa ezagutzera emateko. Gipuzkoako Fibrosi Kistiko Elkarteak eta Klub Deportiboak antolatuta. Untzagan.

INDIANOKUA

17.00. Disparate Eguna eta ping-pong txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

AGINAGAKO JAIAK

18.00. Kanpai-errepika. Aginagako ermitan.

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. El Corte Ingles-eko terrazan (3. solairuan).

DOMEKA 29

ALDERDI EGUNA

09.15. Forondan izango den Alderdi Egunera joateko autobusaren irteera Urkizutik (Zubi Gain pareko geltokitik). Ego Gainerako autobus geltokitik 09.30etan.

AGINAGAKO JAIAK

11.00. San Migel eguneko meza nagusia.

12.30. Piskolabisa eta Gorritiren abereak.

14.30. Paella-jana, Usartza txistulari bandarekin.

INDIANOKUA

17.00. Play eta Wii. Indianokua gaztelekuan.

ASTELEHENA 30

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

MARTITZENA 1

IKASTEN

17.00 eta 18.30. "Joskintza tailerra. Portalean.

EGUAZTENA 2

IKASTEN

10.15. Mendi-ibilaldia: Landako zirkuitoa. Autobusa Ego Gaineratik irtengo da (Urkizutik 10.20etan).

EGUENA 3

ODOL-ATERATZEA

18.30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulategian.

LOMCE-RI EZ

19.00. Eibarko LOMCE-ri Ez taldeak deituta, ikastetxeen ordezkariekin batera agerraldia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ikastaroak

✓ **Ikastaroak hasi baino astebete lehenagora arte UEU.**

- **On line:** "Geogebra aurreratua", "Krisia eta kudeaketa publikoa Euskal Herrian", "Kultura arteko hezkuntzaren garapena", "Moodle 2.3-ren oinarriko erabilera" eta "Ubuntu eta software libreria sarrera".

- **Markeskuan:** "Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen", "Eskola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako", "Isiltasuna gelan", "Jendaurreko komunikazioa" eta "Sormen-tailer aurreratua".
Informazioa: www.ueu.org eta 943 82 14 26 telefonoan.

✓ **Urritik abendura**

JABETZE ESKOLAKO IKASTAROAK.

"Bellas a lo Bestia" (8 ordu). Urriaren 7ra arte.

"Enredadas" (16 ordu). Urriaren 10era arte.

"Autodefentsa Feminista" (12 ordu). Urriaren 28ra arte.

"La risa como recurso" (8 ordu). Abenduaren 2ra arte.
Izen-ematea: Andretxean edo Portalean.

bekak / diru-laguntzak

✓ **Urriaren 11ra arte**

XI. JUAN SAN MARTIN BEKA.

Ikerketa esparrua: Kazetaritza. Bekaren zenbatekoa: 9.000 euro. Informazioa: Urriaren 11ra arte, Pegoran.

✓ **Urriaren 31ra arte**

UMEAK ESKOLARA ETA DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI

Lanak aurkeztea: Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga Plaza, 7 - 3. behean).
Informazioa: Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Ezin baduzu gauza bat egin, ezin da egin eta kitto! Ez zaitetz hain gogorra izan zure buruarekin; ez galdu indarririk horretan.

TAURUS

Zerbaiten beharrez zabilza eta ez duzu ezer aproposik aurkitzen. Begiratu duzu interneten? Han edozer aurkitu daiteke.

GEMINI

Gauzak berriro beharko zenituzke: arinak izanda, garrantzitsuak direlako. Betikoak ez dizu-eta ezer berririk eskaintzen.

CANCER

Gauza bat da teoria ondo jakitea eta beste bat da ikasitako hori praktikara eramatea. Zure dohaiak erakusteko momentua da.

LEO

Euli bat izango balitz bezala izango duzu pertsona hori atzean. Esaiozu pentsatzen duzuna behingoz, ea aldatzen den.

VIRGO

Gauzak ez dira egun batetik bestera ahazten; beraz, ulertu pertsona hori zutaz ez fidatzea oraindik. Denbora behar da.

LIBRA

Datozen egunotan azken urtean baino sendagile gehiago ikusiko dituzu. Euren laguntza beharko duzu: ez zaude ondo.

SCORPIUS

Barrerako gogo handia izango duzu: edozerk sortuko dizu barregura. Oso ona da barre egitea; beraz, zuretako hobe!

SAGITTARIUS

Aste lasaia honakoa zuretzat. Ez zaizu ezer berezirik gertatuko, ez txarrik ezta onik. Trankil, atsedena hartzeko unea da.

CAPRICORNIUS

Proiektu bat hasten baduzu, ez gelditu: egin aurrera, konbentzitututa bazaude. Atzera egiten baduzu, galtzeko izango da.

AQUARIUS

Adi: zerbait harrigarria gerta dakizuke. Bazueta hobe da ezustean harrapatzea: prest egon, gogorra izan daitekeelako.

PISCIS

Dei baten zain zaude, baina ez dirudi aste honetan iritsiko denik. Hobe duzu hori ahaztu eta beste gauza batetan pentsatu.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Irailaren 30era arte

JUAN CARLOS PASCUALEN argazkiak.
El Ambigú kafetegian.

JUAN MARI IBARZABALEN argazkiak.
Klub Deportiboan.

EIBARKO ARGAZKI RALLYKO lanen erakusketa. Portalea tabernan.

✓ Urriaren 13ra arte

JOSE LUIS IRIGOIENEN "50 urte argazkigintzan eta gero hau! Euskal argazkilari baten lanak" erakusketa. Portalean.

✓ Urriaren 31ra arte

ELISABET EGURENEN margo erakusketa. La Taberna de Luis-en (Isasi).

lehiaketak

✓ Urriaren 4ra arte

ASIER ERRASTI EIBARKO XIV. LABURMETRAIA JAIALDIA.
Lanak aurkeztea eta informazioa: www.eibar.net eta www.planocorto.es webguneetan, cultura@eibar.net helbidean eta 943708435 telefonon.

✓ Urriaren 11ra arte

I. OJANGUREN XXVI. ARGAZKI LEHIAKETA
Lanak aurkeztea eta informazioa: Portalean.

✓ Urriaren 15era arte

SANANDRESAK EIBARREN KARTEL LEHIAKETA
Lanak aurkeztea eta informazioa: Pegoran.

farmaziak

✓ barixakua 27

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ zapatua 28

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

✓ domeka 29

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ astelehena 30

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ martitzena 1

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ eguaztena 2

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ eguena 3

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ barixakua 4

EGUNEZ **Las Heras Laramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	5		8	4	2		7
		1				8	
	9						4
3			7		5		1
		2	9		4	7	
7			1		3		4
	7						8
		8				9	
	6		2	1	8		5

SUDOKUA

7	9	5	1	3	8	2	6	4
3	2	8	4	9	6	5	1	7
4	1	6	5	7	2	9	8	3
9	4	2	6	1	3	7	5	8
8	5	1	7	2	9	3	4	6
6	7	3	8	5	4	1	9	2
2	3	4	9	8	5	6	7	1
5	6	7	3	4	1	8	2	9
1	8	9	2	6	7	4	3	5

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai Jardinetan kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komunak. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 95.000 euro. Tel. 605-703603.

– Babes Ofizialeko pisua salgai Eibarko erdialdean, Ardantza kalean. Logela bat, egongela, sukalde, komunak eta trasteroa. Azkenengo pisua. Terraza handia. Eguzkitua. Tel. 660-369141 eta 669-731791.

– Pisia salgai Donostiako Txofre plazan, Groseko hondartzatik gertu. 2 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, bainua, hall eta trasteroa. Garaia 47.000 eurotan aukeran. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Aukera ezinhobea. 298.000 euro. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

1.2. Errentan

– Pisia hartuko nuke alokairuan. 2-3 logelekoa. Tel. 634-170819.

– Logela alokatzen dut Bidebarrieta kalean. Tel. 618-354218.

– Pisia alokagai Ipuruan. 2 logela, sukalde-egongela eta komunak. Bero-gailua. Sartzeko moduan. Tel. 696-045050.

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2-3 logela. Tel. 618-354218.

– Buhardila txikia alokagai. Txukuna eta zentrikoa. Igozailuarekin. Prezio interesgarria. Tel. 656-759593.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala erosiko nuke (50 metrokoa edo handiagoa) Eibar edo inguruan. Ura, elektrizitatea eta bainuarekin (jartzeko aukerarekin). Kontutan izango da terenoa, eskapateak eta bizgarritasuna. Merke. Tel. 665-732640.

– Harategi-urdaitegia salgai Deban, jubilazioa dela-eta. Martxa batean, bezero partikular eta enpresekin. Lan-ean jarduteko makinaria guztiarekin. Oso errentagarria. Aukera bikaina. Tel. 943-191214 eta 943-192546. goizgali@yahoo.es

– Kontsulta saltzen dut Untzagako dorreetan. Eta alokairuan hartuko nuke hilabete erdirako. Prezio onean. Aukera ezinhobea. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Egiguentarren plazan. Gazteentzat aproposa. Prezio onean. Deitu eguerdian. Tel. 943-701394.

– Lokala alokagai Pagaegi kalean. 65 m² eta 4'5 metroko altuera. Negoziorako aproposa. 375 euro hilean, gastuak aparte. Aparkalekua alboan. Aukera ona! Tel. 600-946854.

– Garaia alokagai Untzagako parking-aren ondoan. Marraduna. Tel. 658-339709.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.

Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 687-610998.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-075865.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.

– Irakasle ikasketetako 4. mailako ikaslea eskaintzen da goizetan haurrak esnatu, gosaria eman eta eskolara eramateko. Tel. 634-430647.

– Neska arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-423493.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 672-076852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 600-332954.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-731324.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia. Tel. 628-188028.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-180233.

– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-776778.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 696-802587.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 607-396018.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 617-844142.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-071463.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da arratsaldetan etxeak, pegorak edo bulegoak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-461600. Arrate.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 672-834167.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera edo sukaldari jarduteko jantzetan zein hoteletan. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da gozogle edo okin moduan eta kamarera edo saltzaile jarduteko. Tel. 622-654862.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Jornada erdirako. Tel. 680-121252.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutan. Tel. 657-156254.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 688-302653.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 645-366850.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak edo soziedadadeak garbitzeko Interna. Tel. 674-713262.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-866535.

– Emakume euskalduna eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 640-315602.

– Haur Hezkuntzako goi mailako titulua eta EGA duen emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 660-522271.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserriko lanak egiteko eta kamarero jarduteko. Tel. 686-077316.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.

– Emakumea eskaintzen da garbitzaile lanetan jarduteko: bulegoak, etxeak, tabernak ... Tel. 664-111706.

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 672-584590.

4.2. Langile bila

– Emakumea behar da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-529935.

– Ofiziala behar da Eibarko ileapaindegian. Tel. 943-207207.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Arkitekto euskalduna eskaintzen da DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasgai tekniko-zientifikoak emateko. Esperientzia. Tel. 615-704540.

– Ekonomiketan lizentziatua eskaintzen da Matematikak, Kontabilitatea eta Finantza-Matematiketako partikularrak emateko. Tel. 657-771496.

– Ingeniaritza tituludunak klase partikularrak ematen ditu. LHtik Batxilergo arte, Heziketa Zikloak eta unibertsitatekoak. Talde txikiak. Tel. 669-622642. Mireia.

– LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 670-793312.

– Azken kurtsoko Pedagogiako ikasle euskalduna eskaintzen da klase partikularrak eta ikasketa-teknikak emateko. Tel. 676894791.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bugaboo markako aulkia errendako patinetea erosiko nuke. Tel. 666-769414.

– Zuhaitz itxurako zintzilikario dekoratiboa salgai. Prezioa adosteko. Tel. 660-840246.

– Idazmahaia salgai. Poliplas silla, mahai-gaineko lanpara eta osagarriekin. Erabili gabe. Merke. Tel. 943-120308.

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Gitarra klasiko "espainiarra" salgai. Tel. 649-258913.

6.2. Eman

– Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 685-739709.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Bi zintzilikario galdu nituen orain dela hamar bat egun: bata eskorpioiarekin eta bestea aingura, gurutzea eta bihotzarekin. Tel. 943-702247.



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON

MATRIKULAK
Urriaren 1etik 17ra

AZTERKETA DATA

FCE LARUNBATA **Abenduak 7 (azterketa osoa)**
CAE ASTEAZKENA **Abenduak 4 (idatzizkoa)** LARUNBATA **Abenduak 7 (ahozkoa)**
CPE OSTEGUNA **Abenduak 5 (idatzizkoa)** LARUNBATA **Abenduak 7 (ahozkoa)**

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	Mondragon Lingua	943 71 20 55		North Street English	943 19 25 00
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Anglo-American	943 20 64 57	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Mondragon Lingua	943 71 60 00	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58
ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79			



UNTZAGAN

#SagardoEguna

EIBARREN

antolaitzailea:



Euskara Elkarte

laguntzaileak:



Urriak 5, zapatua 12.00-14.30/19.00-amaitu arte

Zumaian

2 eta 3 logelako etxebizitzak igerilekuarekin

ortiz Bizigunea



Urriaren 31 baino lehen
kontratua sinatzen
duten guzientzat
**DUTXA INTEGRALA
OPARI**

Diseinu paregabea eta kalitatezko materialekin egindako etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak, igerileku eta guzti

**GOZATU LUXUAZ
KALITATE-PREZIO
EZIN HOBEAN**



Zirkulu zurian **ORTIZ BIZIGUNEA**
Axular Ibiltokia, 18an

2 logelakoak
170.000 €tik
aurrera

3 logelakoak
240.000 €tik
aurrera

Sustatzailea

inmo
oiola

Eraikitzailea


ALTUNA Y URÍA S.A.
CONSTRUCCIONES

Salmenta Puntua

Ibain
Agencia inmobiliaria

Z
INMOZUMAIA

Telefona

606 957 532

E-posta

info@inmoloiola.com

Web orria

zumaianbizi.com